




Bilbotikan Ibilbide Mitologikoak



IRAKASLEAREN GIDA



Antzerki Klasikoaren Euskal Institutua
Instituto Vasco de Teatro Clásico



Omenaldia Arriagari (1933)

Kokapena: Arte Eder Museoa; Casilda Iturrizarren parkea.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Francisco Durrio (1868 -1940)** valladolidarra.

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...):

1905ean, Bilboko Udalak, Arriaga musikariaren jaiotzaren mendeurrena ospatzear zegoela, haren omenez oroigarri bat egiteko deialdi publikoa ireki zuen. Epaimahaiak Durriori eman zion lehenengo saria.

Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **brontzea.**
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **urrezko patinarekin leunduta**
- Mota** (mukulu biribila, erreliebea, formagabekoa...): **librea, mukulu biribila, argilunak sortzen dira**
- Dimentsioak:**...

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higidurran; naturalista / eskematikoa ; errealista / idealizatua...):

Artelan honek ur-malkoak darizkion lira bat haren bularraren kontra estutzen duen emakume biluzgorri bat (*Melpomene* tragediaren musa, agian) erakusten du, oin-puntetan zerura begiraten ari dena, Zeusi aurre egin nahi balio bezala. Eskulturaren oinarrian, pentagrama batean dauden txori batzuk, pentsakor dauden gizakien buru bi eta ura darion maskara bat ikusgai daude.

Artelan horrek klasizismo eta errealismo hutsetik ihes egiten du, eta modernismoari eta sinbolismoari atxikitzen zaie.

Alde batetik, bai liratik, bai oinarriko maskaratik ateratzen den urak, tristurak eragindako ur-malkoen ideia indartzen du. Bestalde, maskarak eta giza buru hieratikoez eragindako ekialdeko zibilizazioen kutsuak indar tragikoa eta dramatismo--itxura ematen dizkio hiletaroroigarri horri.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Musa bat irudikatuta agertzen delako, tragediaren musa *Melpomene*, agian.

Durrio gai alegoriko batez baliatu zen Bilboko musikariaren omenezko monumentua egiteko; hau da: ez zuen Arriaga musikaria bera irudikatu, musika hezurramitzen duen musa baizik.



Ceres eta Mercurio (1940)

Kokapena: Bilboko kale Nagusia, 55 etxaldeko aurrealdea (fatxada).

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Joaquín Lucarini** (1905-1969). Gaiaren tratamendua, simetria eta oreka direla eta, eskulturen estiloak klasizismoa hartzen du oinarri eta abiapuntu. Hala ere, euren hieratikotasuna eta bertikaltasuna nabariak dira; horregatik, estatua baino, zutabe-itxura daukate artelan horiek.

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...):

Bi eskultura hauek Pedro Ispizua arkitektoak diseinatutako eraikin baten fatxadako goiko partea apaintzen dute. Leiho batzuen albo banatan, Zeres jainkosaren eskultura, ezker aldean, eta Merkurio jainkoarena, eskuinaldean, nekez antzeman daitezke.

Bilboko irian, merkataritza- jarduera ekonomikoa nagusitzen dela, eta leku hartan Zeres delako irin-fabrika egon zela gogorarazteko ideiarekin.

Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **harria**.
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **harri gordina**.
- Mota** (mukulu biribila, erreliebea, formagabekoa...): **fatxadari atxikiak**
- Dimentsioak:**-----

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higiduran ; naturalista / eskematikoa ; errealista / idealizatua...):

Stolaz eta pallaz jantzita, Zeres nekazaritzaren eta laboreen jainkosa dugu, eta, eskultura honetan, ezkerreko besoan, fruituak darizkion ugaritasun-adarra badarama.

Bestalde, Merkurio merkataritzaren jainkoa izanik, bere ohiko atributuak erakusten ditu eskultura horrek: hala nola, *kaduzeo* izeneko makila eskuineko besoan, eta *petaso* kapela hegoduna buruan.

Deigarria da tunika batez jantzita egotea, eskuarki biluzik irudik atzen zaiolako.

Pertsonaien hieratikotasuna eta bertikaltasuna nabariak dira; horregatik, estatua baino, zutabe-itxura daukate artelan horiek.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Zeres nekazaritzaren eta laboreen jainkosa dugu eta Merkurio merkataritzarena.

Merkurio jainkoa Bilboko motiborik irudikatua da, hiriaren jarduera ekonomikoa merkataritzan oinarrituta dagoelako. Bestalde, itsasadarraren ondoan, *Zeres* izeneko irin-fabrika bat egon zela gogoan hartu behar da.





Minerva (1926-27)

Kokapena: Bilboko Unamuno institutuaren eta Bertendona eta Poza Lizentziatua kaleen arteko gurutzagunea. Eraikineko izkina batean dagoen hobia.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Moisés de la Huerta (1881 - 1962)**

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...):

IES Miguel de Unamuno BHI ikastetxeko Minerva pentsamenduaren eta lanaren sinbolo dugu.

Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **harria**
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **polikromatua**
- Mota** (mukulu biribila, erreliebea, formagabekoa...): **irudikatzailea**
- Dimentsioak:** -----

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higiduran ; naturalista / eskematikoa ; errealista / idealizatua...):

Hieratikoa. Eskultura horren estiloa guztiz klasikoa da, hortaz, proportzioa, simetria, oreka eta bikaintasuna agertzen ditu eredu grekoetan abiapuntu hartuta.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Minerva jakituriaren jainkosa erromatarra dugu.

Peploz jantzitako Minerva jainkosa irudikatzen duen estatua honek *egida* izeneko bular-oskolaz babesturik dauka bularra. Eskuinarekin, *Medusa* gorgonaren buruaren irudia dakarren ezkutua heltzen du, haren etsaiak harri bihurtzeko asmoz; eta, ezkerrarekin, adorea sinboloa den lantza bat hartzen du. Buruan, esfinge batez apaindutako kaskoa badarama.



Mercurio (1920-22)

Kokapena: BBVAren egoitza; Bilboko Kale Nagusia, 12 .Izkina egiten duen fatxadako errematea.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Moisés de la Huerta (1881 - 1962)**. Eskultura hau sortzean, XVI. mendean Giambolognari egindako *Mercurio hegalaria* inspirazio-iturri izan zen.

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...): *Banco del Comercio* delako banketxearen sinboloa izateko.



Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **brontzea**
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **leundutakoa**
- Mota** (mukulu biribila, errelieba, formagabekoa...): **librea, mukulu biribila, argilunak sortzen dira**
- Dimentsioak:** -----

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higiduran; naturalista / eskematikoa; errealista / idealizatua...):

Merkurioren atributu guztiak agertzen dira: sandalia hegodunak, bi hegoko *petaso* izeneko kapela, eta bi suge kiribildurik dituen *kaduzeo* delako makila.

Mercurio karabela idealizatuta batetik hegan egiteko prest dago.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Merkuriok duen merkataritza babesteko ardura izan da jainko horren irudia banketxe batean kokatuta egotearen arrazoia.

Merkuriok bideak, bidaiariak, lapurrak eta, batez ere, merkataritza babesteko ardura zuelako mitologia klasikoan.

Minerva (1950)

Kokapena: Aspalditik izandako *Banco Hispano Americano*n egoitzan, etxealdeko aurrealdean, Bilboko Kale Nagusia, 2an.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Ricardo Iñurria** (1908-1995). Santurtziarra. Arte eta Lanbide Atxuriko eskolan ikasi zuen. Aste Santuko "paso"-etarako eskultura polikromatu asko egin zituen. Basurtoko ospilean, nahiz Derioko eta Bizkaiko beste hilerrietako eskultura ugari.

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...): **Banku baten alegoria.**

Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **Brontzea.**
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **leunduta**
- Mota** (mukulu biribila, erreliebea, formagabekoa...): **librea, mukulu biribila.**
- Dimentsioak:** ---

Deskribapena (Jarrera, janskeria, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higidurari; naturalista / eskematikoa ; errealista / idealizatua...):

Tente, dotorea eta erreginaria. Greziar tunika luze estilokoa daramala. Eskuineko eskua lantzarekin eta ezkerrekoan *gorgon* baten irudia daramala ezkutuarekin, lurrean jarrita. Bularrak armaduraz babesturik. Ilhoria (heroi-heroina guztiek bezala) bular handiko *esfingez* koroatutako kaskoz estalita.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Minerva erromarra, Atenea greziarra da. Bere izena *mens* (adimena) latinezko hitzatik etor daiteke. Zientziak, arteak eta hemen ezjakintasunaren iluntasun aurkako gisa gerraren jainkosa.

Jakinduria jainkosa bezela eserita irudikatuta. Gerrako jainkosa bezala, ordea, zutik.

Jupiterren alaba, zeinek behin *Metis* (titánide bat Mnemósiden gisa) irentsi ondoren, Zuhurtzia, buruhauste handi bat sentitu eta Vulcanorengana jo, zeinek burua ireki zuen aizkora batekin, Minerva sortuz, jada hazita eta Gigantomaquian (Erraldoien aurkako gerra) bere aita laguntzeko lantzarekin, non bere ausardiaz nabarmendu zen.



Justiziaren alegoria (1935)

Kokapena: *La Equitativa* aseguru-etxeke aurrekaldean. Bilboko Mazarredo kalea, 7an.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Joaquín Lucarini** (1905-1969). Eskulturaren estiloak *art-decò* delakoa jarraitzen du argi eta garbi. Hortaz, lerroen estilazioa, formen simetria eta geometriarako zaletasuna nagusitzen dira artelan horretan.

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria...): *Lotura estua* dauka aseguru-etxearen izenarekin. Ekitatea zein inpartzialtasuna sinbolizatzen ditu.



Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): Alemaniako granito beltza.
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): arrunta
- Mota** (mukulu biribila, errelieba, formagabekoa...): fatxadari atxikitako goi-erlieba.
- Dimentsioak:** ----

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higiduran ; naturalista / eskematikoa ; errealista / idealizatua...):

Pertsonaiak aurpegi hieratikoa eta zurruna aurkezten du, malgutasunik eza aditzera eman nahian.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Balantza bat eusten duen *Aequitas* jainkosa erromatarra.

Eskultura honetan, tunika batez jantzitako emakumea eserita dago ereinotzeko adarrez eta oihal batez apaindutako tronu batean. Eskuinean, bi platerak parean dituen balantza grekoa eusten du zuzentasuna adierazteko, eta ezkerrean, dokumentu bat badarama biribilkaturik.



Musa (1948)

Kokapena: Bilboko Uribitarte pasealekua.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Enrique Barros Fernández (1905- 1990)**. Gaiaren zein itxuraren aldetik, estatua horren kutsu klasizista agerian dago, oreka, proportzioen kanona eta simetria nagusitzen direlako.

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...):

Arriaga musikariaren heriotzak eragindako tristura sinbolizatzen du. Frankismo garaian Bilboko Udalak Enrique Barros eskultoreari estatua hori enkargatu zion, Durriok 1905ean egindako musa biluzgorria ordezkatu nahian.

Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **harria eta marmola.**
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **leundutako eta zakarra/arrunta. Bi testurak.**
- Mota** (mukulu biribila, errelieba, formagabekoa...): **Mukulu biribila (erliebe gabekoa) librea. Figuratiboa (ez abstraktua), naturalista (ez eskematikoa), estatikoa (ez higikorra) eta errealista (ez idealizatuta).**
- Dimentsioak:** ----

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higiduran; naturalista / eskematikoa; errealista / idealizatua...):

Hileta-nekostez eta negar-tanta itxurako iturri batzuek inguratutako zirkulu-urrael batean kokatuta dago. Eskultura horrek heriotzaren indar tragikoa galdu du Durriorenarekin alderatuta.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Eskulturak *stolaz* jantzitako emakume bat (*Melpomene* musa, seguruenik) erakusten du, lira bularraren kontra estutua eta zeruari begira.



Terpsícore (2003)

Kokapena: Bilboko *Euskalduna Jauregi*ko pasealekuko urmaelean.

Egilea (izena, garaia, arte estiloa,...): **Salvador Dalí** (1904-1989).

Dalik, perspektibaren bi dimentsioetatik abiatuta, hartarago joan nahi izan zuen, eta artelanaren barrentasuna irudikatzen saiatu zen hiru dimentsioen bidez

Enkargua eta artelanaren funtsa (apaingarria, sinbolikoa, ospagarria,...):

Seguros Bilbao-Fortis enpresak artelan hori erosi zuen 600.000 euroren truke, eta *Bizkaiko Foru Aldundiari* eman zion zerga moduan.

Fitxa teknikoa:

- Materiala** (harria, brontzea...): **Brontzea.**
- Bukatuta** (leundutakoa, polikromatua, bukatugabekoa...): **Leunduta.**
- Mota** (mukulu biribila, erreliebea, formagabekoa...): **mukulu biribilatik librea.**
- Dimentsioak:** **5 metroko altuera eta 5000 kiloko pisua.**

Deskribapena (Jarrera, janskera, pertsonaiaren jarrera; itxurezkoa/abstraktoa; estatikoa / higidura; naturalista / eskematikoa ; errealista / idealizatua...):

Eskulturaren estiloa sinbolismoari atxikitzen zaio era nabarmenean.

5 metroko altuera eta 5000 kiloko pisua dituen eskultura honek Terpsikore tragedia grekoaren koruen eta dantzaren musa irudikatu nahi du.

Dantzaz ari den tunikaz jantzitako emakume baten irudia suma daiteke, besoak altxatuta eta bururik gabekoa. Ematen du pertsonai dantza egiten dabilela besoak altxaturik.

Iruditutako pertsonai mitologikoaren datuak:

Dantzaren musa.

Daliren arabera, hilkorren gainean altxatzen den musa horrek dantzaren garaipena sinbolizatzen du, eta, horretarako, ez zuen maskaren edo aurpegiren beharrik izan.



Musak

Herodotok bederatzi musa zeudela esan zuen eta Hesiodok aipatzen ditu bere lana *Teogonian*.

Bederatzi Musa kanonikoak honakoak dira:

Clío 'gloria eskeintzen duena'; Historiaren musa (epopeia). Paper korapilo batekin eskuetan agertzen da.

Talía 'jaikorra'; komedia eta olerki bukolikoaren musa, komiki maskara batekin irudikatzen da.

Erato 'maitekorra'; olerki liriko-matekorraren musa (matekor abestia).

Euterpe 'oso atsegina'; musikaren musa, txirula jotzeko artearena, bereziki.

Polimnia 'ereserki askorena'; abesti sakratu eta olerki sakroaren (himnoak) musa. Meditazioan ordezkatuta ohi da, bere ukondoak harkaitz edo idulki baten jarrita.

Calíope 'ahots finarena'; elokuentzia, edertasuna eta poesia epikoaren musa (abesti narratiboa).

Terpsícore 'dantzan atsegina'; dantza eta olerki-abetesbataren musa. Bere eskuetan lira batekin irudikatzen ohi da.

Urania 'zerutiarra'. Astronomía, olerki didaktikoa eta zientzia zehatzen musa.

Melpómene 'doinukorra'; Tragediaren musa, maskara eta maza batekin irudikatzen da.

Hilkorren inspiratzaileak bezela sarritan "Arte Ederrekin" nahigabe lotutak.



Bederatzi musa kanonikoak (ezkerretik eskubira):
Clío, Talía, Erato, Euterpe, Polimnia, Calíope, Terpsícore, Urania eta Melpómene.
Louvre Museoko sarkografoaren irudia.

Iliada eta Odisea

Homero (VIII.mendea K.A.) ustezko **Iliadaren** egilea da, Agamenon Greziako ligako erregea eta Priamo Troiako erregearen arteko gerraldia kontatzen dela. Akilesek Hector printzea hiltzen du, bitartean Ulisesek "Troiak zaldia" asmatzen du hiria hartzeko. **Odisea** zeinek, Ulisesek, Ithacako erregea, bere erresumara itzultzeko dituen zailtasunak kontatzen dituelarik non bere emaztea Penelope eta bere semea Telemaco ezkongabe mantentzeko saiatzen direla.

Lucarini Bilbon

Justiziaren alegoria (1935). "La Equitativa" etxaldearen aurrekaldea. Mazarredo zumrd. Albia lorategien aurrean.

Ceres eta Mercurio (1940). Kale Nagusia, 55ko etxaldearen aurrekaldean.

Alexander Fleming (1962). Fleming plaza, Zabala auzoa, Kortez kalearen hasiera.

Erregegeak (1942). Zabalburu plazaren etxalde baten aurrekaldearen gailurrean.

Bihotz Sakratua (1936). Derioko hileria 20. etxe multzoko 2. hilobia.

Irakurtzen (). Salazar Zubia plazan, Kale Nagusia, 60-62.ko parean.

Nabigazioa eta Industria (1947). Kale Nagusia, 68.ko etxalderaren aurrekaldea.

Tigrea (1943). Rafaela Ibarra kalearen hasiera, Deustuko Erriberako Botika Zaharra.

Uda (1936). Zorrozaurre lorategi zonaldea, "Tigre" aurrean.

Familia Sakratua (1939). Lehendakari Aguirre etorbidea, 35.ko etxaldearen aurrekaldea.

Musika alegoriak (1930). Arenaleko kioskoa.

Arte Liberalei (1934). Campo Volantíneko etxalderaren aurrekaldea, Udaletxearen zubi batez lotuta.

Abiazioa eta Merkataritza (1944). Uribitate kaiaren etxaldea, Buenos Aires kaleko ertza.

Errelieveak (1930). "Club Deportivo"an

14tik 18ra (1930). Arte Ederretako Museoa.

"Fama" (). Udaletxearen atzeko kalea.

Inmakulada (). Deustuko Unibertsitatea.

San Francisco Javier (). Bilboko izenberekoko eliza.